HAUTESKUNDE OROKORREN
PROGRAMA 2026
PROGRAMA ELECCIONES
GENERALES 2026

Defendemos
EUSKADI
Zaindu

eaj pnv

AURKIBIDEA

AURKIBIDEA

ZURI ARDURA ZAIZUNA. GUK DEFENDATUKO DUGUNA. 3

EUSKADIREN ALDE EGITEKO BOST KONPROMEZU 5

ZURE BIZITZA BERTAN EGIN AHAL IZATEA 6

1.1 Etxebizitza: gehiegikeriekin amaitzea eta etxebizitza gehiago eraikitzea 7
1.2 Euskadin emantzipatzeak posible izan behar du 8
1.3 Soldata hobeak, enplegu duina eta lan-eskubideak 9
1.4 Aukerak zabalduko dituen hezkuntza 10
1.5 Ahotsa eta erabakitzeko gaitasuna izango duen gazteria 11

LAN EGITEN ETA AURRERA EGITEN DUEN EUSKADI 12

2.1 Industria sendoa eta erabaki-guneak Euskadin egon daitezela 14
2.2 Ekintzailetzan ari direnei, enplegua sortzen dutenei eta gure negozioak bizirik mantentzen dituztenei babesa ematea 14
2.3 Energia lehiakorra gure industriarentzat eta eskuragarria familientzat 15
2.4 Ingurumena babestuko duen trantsizio ekologikoa eta aukerak sortuko dituena 16
2.5 Etorkizuna gure herrientzat, nekazarientzat eta arrantzaleentzat 17
2.6 Azpiegiturak: epe-mugak, inbertsioak eta emaitzak. 19
2.7 Jarduera ekonomikoari mesede egingo dion fiskalitatea, inbertitzeko aukerak emango dituena 20

LASAITASUNEZ ETA ESKUBIDEEKIN BIZITZEA 22

3.1 Kale eta auzo seguruak. Gaitasun guztiak dituen Ertzaintza 23
3.2 Euskaditik kudeatutako migrazioa, eskubide eta erantzukizunekin 24
3.3 Benetako berdintasuna eta indarkeria matxistarik gabeko bizitza 25
3.4 LGTBIQ+ pertsonen eskubideak defendatzea eta diskriminazioari aurre egitea 26
3.5 Atzerapausorik gabeko giza eskubideak eta askatasunak 27

LORTUTAKOA ZAINTZEA 29

4.1 Pentsio duinak eta justizia kotizazio-karrera luzeentzako 30
4.2 Behar dugunean erantzungo duen osasun publikoa 31
4.3 Zaintzen dituztenak zaintzea. Bere lana aitortzea eta bere eskubideak babestea 32
4.4 Gaixotasun larrien eta mendekotasunaren aurreko babes eraginkorra 33
4.5 Amiantoaren biktimentzako bidezko eta atzerapen gehiagorik gabeko erreparazioa 34
4.6 Haurrak babestea eta belaunaldi guztien ongizatea bermatzea 34

HEMEN ERABAKI. HAN ENTZUNARAZI 36

5.1 Hitzartutakoa bete egiten da. Hemen erabakitzeko gaitasun gehiago 38
5.2 Ekonomia Ituna defendatzea. Itun politiko berri baterantz aurrera egitea 39
5.3 Justizia hurbilagoa eta Euskaditik erabakitzeko ahalmena duena 39
5.4 Egia, justizia eta erreparazioa. Kontuak ematen dituen demokrazia 40
5.5 Euskadi, ahots propioarekin Europan 41
5.6 Europako funtsak Euskadira iritsi eta Euskaditik kudeatu behar dira 41

EUSKADI ZAINDU

ZURI ARDURA ZAIZUNA. GUK DEFENDATUKO DUGUNA.

DEFENDATU. ADOSTU. EXIJITU.

Azaroaren 29ra begira, asko dugu jokoan. Jokoan daukagu Madrilen Euskadi nork defendatuko duen, euskal hiritargoaren interesak nork babestuko dituen eta datozen lau urteotan, emaitza onak lortzeko, ekinean nor arituko den. Batzuk blokeak, itunak edota Moncloan nor eseriko den hitzetik hortzera darabilten bitartean, **guk benetan ardura dizunari buruz hitz egin nahi dugu: zure etxebizitza, zure lanpostua, zure soldata, zure pentsioak, zure eskubideak eta Euskadiren etorkizuna.**

Euskadik bere beharrizan propioak ditu, bere lehentasunak eta bere ahotsa. Eta horiek denak irmo eta sendo defendatuko dituen ordezkaritza behar du, negoziatzeko gaitasuna izango duena, euskal hiritargoaren bizimodua eta bizi kalitatea hobetzeko akordioak lortuko dituena**.** Madrilera ez gara joango inoren laguntzaile izatera, ezta inoren gobernuri alfonbra gorririk jartzera ere. Euskadi defendatzera joango gara, agenda propio batekin eta une bakoitzean gure Herriarentzat onena dena erabakitzeko askatasunari eutsiz.

Printzipio argiak ditugu. EAJ-PNVk sekula ez du babestuko Vox-en eskutik osatutako gobernurik. Eskubide eta askatasunetan ez dugu atzera pausurik onartuko eta gure balore demokratikoei ez diegu uko egingo. Eskubideak murrizteko gogoz, gure autogobernua auzitan jartzeko edo Euskadiren kontrako erabakiak inposatzeko asmoz datorren eskuineko edo ultraeskuineko edozein gobernuren aurrean, tinko aurkituko gaituzte, aurre egingo diegu. Gure erakundeak defendatuko ditugu, gure nortasuna eta orain arte konkistatutako askatasunak babestuko ditugu, demokraziak eta parlamentuak ematen dizkiguten tresna guztiak baliatuz. Ez dugu atzera pausurik emango Euskadi atzean utzi nahi dutenen aurrean. Estatuko ezein alderdiri ere ez diogu txeke zuririk emango. Elkarrizketarako prest gaude, negoziatu eta akordioak adostuko ditugu, baldin eta Euskadiri mesede egiteko badira. Gure printzipioak ez dira aldatuko. Betikoak dira, Moncloan bat dela edo bestea dela.

Bizi-proiektu ona eraikitzeko aukera emango dizun Euskadi bat nahi dugu, non etxebizitza eskuratu ahal izango duzun, lanean irabazitakoarekin duintasunez bizitzeko aukera izango duzun, eta gazteek berton geratzeko eta etorkizuna berton garatzeko aukerak aurkituko dituzten. Industria sendoa, enpresa lehiakorrak eta kalitatezko enpleguak izango dituen Euskadi. Pentsio duinekin, zerbitzu publiko sendoekin eta behar dituztenentzako zainketekin. Kale eta auzo seguruak nahi ditugu, arduraz eta gizatasunez kudeatutako migrazioa, eta elkarbizitza, berdintasuna eta askatasunak babestuko dituen gizartea.

Herritarren arazoek erantzunak eta emaitzak eskatzen dizkigute. Ordaindu ahal duzun etxebizitza bat, hilaren amaierara iristea ahalbidetuko dizun enplegu bat, haren balioari eutsiko dioten pentsioak eta behar dituzunean erantzun ona emango dizuten zerbitzu publikoak. Lehentasun horiek defendatuko ditugu proposamen zehatzekin, gauza daitezkeen akordioekin eta parlamentuan gogor lan eginez. EAJ-PNVk behin baino gehiagotan erakutsi du Madrilen ahots propioa izateak aurrerapausoak dakartzala.

Horretarako, erabakitzeko gaitasuna behar dugu. **Autogobernua defendatzea da zuzen-zuzenean eragiten digun horri buruz erabakitzeko ahalmenari eustea**. Horregatik, Gernikako Estatutua osorik betetzea erreklamatzen jarraituko dugu, Euskal Ekonomia Ituna defendatuz eta Euskadiren nazio aitortzaren alde lan eginez. Tresna gehiago nahi ditugu gure arazoei erantzun ahal izateko, gure baliabideak kudeatzeko eta gure etorkizuna Euskaditik bertatik erabaki dezagun. Gure autogobernuak baliagarritasun zehatz bat duelako: pertsonen bizimodua hobetzea.

Hori da politika ulertzeko dugun modua, eta ondorengo hauek dira euskal hiritargoaren aurrean hitzeman ditugun KONPROMEZUak:

DEFENDATZEA Euskadiren eta euskal hiritargoaren interesak. Gure eskubideak, gure ongizatea, gure erakundeak eta erabakitzeko dugun gaitasuna defendatzea. Printzipio demokratikoak argi eta garbi izanik, irmotasun osoz eta guri dagokiguna beste inori erabakitzen utzi gabe.

ADOSTEA, emaitzak lortzeko. Euskadiren beharrak proposamen bihurtuz, proposamenak akordio bilakatuz eta akordioetatik hiritarrentzako benetako hobekuntzak lortuz.

EXIJITZEA adostutako guztia betetzea. Inbertsioak etor daitezela, gure eskuduntzak errespeta daitezela eta Euskadirekin hartutako KONPROMEZU guztiak errealitate bihur daitezela. Irmotasun, zorroztasun eta erabakimen berberarekin, Madrilen gobernuan dagoena dagoela.

Azaroaren 29an erabakiko dugu erantzukizun hori zeinek bereganatuko duen. **Eta, azaroaren 30ean, lanean hasiko gara: 1.461 egun ekimenak aurkezteko, akordioak negoziatzeko eta lortzeko, KONPROMEZU bakoitza defendatzeko eta hiritargoari kontu emateko.** Hauteskunde programa honek jasotzen ditu gure lehentasun guztiak eta Gorte Orokorretan defendatuko ditugun neurriak, Euskadik jarrai dezan izaten aukera, ongizate, elkarbizitza eta askatasunen herria.

A29an erabakiko duguna ez da soilik Madrilen nork gobernatuko duen. Egun horretan Euskadi ondoen nork defendatzen duen erabakitzen dugu. Zure interesak zeinek defendatzen dituen. Zuri ardura zaizunaren alde nork egiten duen.

Euskadi indartsu bat nahi dugu, bere etorkizuna erabakitzeko gaitasun nahikoa izango duena, entzunaraziko duen ahotsarekin. Eta gure helburua da ahots horrek emaitza onak lor ditzala.

DEFENDATZEA. ADOSTEA. EXIJITZEA

EUSKADI ZAINDU. DEFENDEMOS EUSKADI.

EUSKADI ZAINDU

EUSKADIREN ALDE EGITEKO BOST KONPROMEZU

01 **ZURE BIZITZA HEMEN ERAIKI AHAL IZATEA** 6 orr.	Etxebizitza, enplegua, soldatak, hezkuntza eta gazteek eta familiek beraien bizitza proiektua Euskadin eraikitzeko aukerak.
02 **LAN EGITEN ETA AURRERA EGITEN DUEN EUSKADI** 12 orr.	Industria, enpresak, energia, nekazaritza, itsasoa, azpiegiturak eta jasangarritasuna.
03 **LASAITASUNEZ ETA ESKUBIDEEKIN BIZITZEA** 22 orr.	Segurtasuna, elkarbizitza, migrazioa, pertsonen babesa eta eskubideak.
04 **LORTUTAKOA ZAINTZEA** 29 orr.	Osasuna, pentsioak, gizarte babesa eta belaunaldien arteko elkartasuna.
05 **HEMEN ERABAKI. HAN ENTZUNARAZI** 36 orr.	Autogobernua, demokrazia, justizia, erakundeak eta gure ahots propioa Europan.

01

1. KONPROMEZUA

ZURE BIZITZA BERTAN EGIN AHAL IZATEA

Etxebizitza, enplegua, soldatak, hezkuntza eta gazteek eta familiek beraien bizitza proiektua Euskadin eraikitzeko aukerak.

ATAL HONETAN

1.1 Etxebizitza: gehiegikeriekin amaitzea eta etxebizitza gehiago eraikitzea

1.2 Euskadin emantzipatzeak posible izan behar du

1.3 Soldata hobeak, enplegu duina eta lan-eskubideak

1.4 Aukerak zabalduko dituen hezkuntza

1.5 Ahotsa eta erabakitzeko gaitasuna izango duen gazteria

01

Lanpostu bat izatea nahikoa izan beharko litzateke etxebizitza bat ordaindu ahal izateko eta nork bere bizi proiektua hasteko. Gaur egun, hainbat gazte eta familientzat, alokairuak edo hipotekak soldataren zati handiegia eskatzen du. Etxebizitza eskuragarri gehiago nahi ditugu, erosteko edo alokatzeko modukoak, alokairuetan gehiegikeria gutxiago eta emantzipatzeko benetako aukera gehiago. Eta soldatak nahikoa izan beharko luke bizitzeko, aurrezteko eta familia bat osatzeko, hala erabakitzen baduzu.

Gure lehentasuna da etxebizitza eskuratzea ez dadila izan oztopo-lasterketa bat. Neurriak babestuko ditugu eraikuntza- eta birgaikuntza-proiektuak ugaritzen laguntzeko, hutsik dauden etxeak merkaturatzeko, jabeei segurtasuna emanez eta maizterren bermeak urratuko dituzten kontratuak saihestuz. Eskaintza zabalagoa eta arau argiak, hemen bizitzea ez dadin pribilegioa izan.

Lanean jartzen duzun esfortzuaren fruitua hile amaieran nabaritu ahal izatea ere nahi dugu. Bizitzaren kostuaren araberako soldatak defendatuko ditugu, lan baldintza duinekin eta enpleguarekin konektatuta egongo den prestakuntzarekin. Hezkuntzak eta Lanbide Heziketak ateak irekitzeko balio behar dute, inor aukera baten zain utzi gabe.

Emantzipatzeko ez litzateke behar familiaren laguntza etengabe jasotzea. Nahi duguna da gazteek eurek erabaki ahal izatea etxetik noiz aterako diren, eta familiek eskura izan ditzatela bizitza pertsonala eta lana uztartzeko eta etxekoak zaintzeko aukerak. Horregatik, lehentasun berean lotzen ditugu etxebizitza, enplegua eta gizarte babesa: zure bizitza berton egin ahal izatea.

Hori lortzeko, behar besteko erreformak eta baliabideak erreklamatuko ditugu Madrilen, euskal erakundeek eraginkortasunez jardun ahal izan dezaten, beren eskuduntzak errespetatuz. Erabakiek ekarri beharko dituzte etxebizitza gehiago, diru-sarrera hobeak eta benetako aukerak.

Hona hemen gure KONPROMEZUa: etorkizuna ez dadila hitz hutsa izan, eta Euskadin bizi-proiektua egitea berton bizi eta lan egiten dutenen eskura egon dadila berriz.

GURE KONPROMEZUAK

1.1 Etxebizitza: gehiegikeriekin amaitzea eta etxebizitza gehiago eraikitzea

Etxebizitza bat aurkitzea errazagoa izatea nahi dugu, alokatzeko prozesuak arau argi eta garbiak izan ditzala. Neurri zehatzak defendatuko ditugu eskaintza handitzeko, iruzurrezko jokaerei aurre egiteko eta bizitokia behar duten guztiak babesteko.

PROPOSATZEN DITUGUNAK

ETXEBIZITZEN ESKAINTZA HANDITZEA

01 Hirigintza-izapideak arintzea, etxebizitza berriak eraikitzea errazteko, arrazoizko epeekin eta legezko bermeekin.

02 Etxebizitza hutsak merkaturatzen laguntzea eta eraikinak birgaitzea, bizitegi-eskaintza handitzeko.

ALOKAIRUA ARAUTZEA ETA GEHIEGIKERIAK SAIHESTEA

03 Sasoiko kontratuetan ez dadila iruzurrik egin, ohiko etxebizitzaren alokairuaren bermeak ekidin ez daitezen.

04 Sasoiko alokairuak eta alokairu turistikoak arautzea, bizitegi-alokairuaren merkatuari etxebizitzarik ken ez diezaioten.

05 Etxebizitza garestitzen duten eta alokairua eta erosketa oztopatzen duten espekulazio-praktikak murriztea.

BERMEAK ETA BIZITEGI-BABESA

06 Maizterrei eta jabe txikiei segurtasun juridikoa ematea, ohiko alokairua erraztera begira.

07 Familia kalteberei bizitegi-alternatibak eskaintzea, erantzukizun osoa jabe txikien bizkarrean jarri gabe.

1.2 Euskadin emantzipatzeak posible izan behar du

Gazteen eskubidea da beren bizi-proiektua autonomia osoz garatzea. Etxebizitza eskuratzeko aukera izan dezatela, baldintza duinetan lan egin dezatela eta non eta nola bizi nahi duten erabaki ahal izan dezatela.

PROPOSATZEN DITUGUNAK

LEHENENGO ETXEBIZITZA ESKURATZEA

01 Neurri espezifikoak sustatzea gazteek beren lehenengo etxebizitza eskura dezaten, bai alokairuan, bai jabetzan.

02 Etxebizitza-politika publikoek emantzipazio-aukera desberdinak jasotzen dituztela ziurtatzea, babestutako alokairua gazteek eskura duten aukera bakarra izatea saihestuz.

ENPLEGUA ETA AUTONOMIA EKONOMIKOA

03 Prestakuntzaren eta enpleguaren arteko lotura hobetuko duten neurriak bultzatzea, gazteak kalitatezko lanpostuetan sar daitezen erraztuz, haien prestakuntzarekin bat datozenetan.

GAZTE-IKUSPEGIA ETA FINANTZAKETA

04 **Estatuaren etxebizitza, enplegu, soldata eta gizarte-babeseko erreformetan, gazteen emantzipazioa lehentasuntzat hartzea**, eta erabaki horiek gazteek modu independentean bizitzeko duten gaitasunari nola eragiten dioten ebaluatzea.

05 Emantzipazio-politika egonkorrak eta finantzaketa nahikoa dutenak sustatzea, euskal erakundeen ekimenak osatzeko eta haien eskumenak errespetatzeko.

1.3 Soldata hobeak, enplegu duina eta lan-eskubideak

Lan egitearekin nahikoa izan beharko litzateke etxebizitza ordaintzeko, eguneroko gastuei aurre egiteko eta aurrezteko. Euskadiko bizitzaren kostuarekin bat datozen soldatak, enplegu egonkorrak eta beteko diren lan-eskubideak defendatuko ditugu.

PROPOSATZEN DITUGUNAK

SOLDATAK ETA NEGOZIAZIO KOLEKTIBOA

01 Euskadirentzako estatus politiko berri baten esparruan, gutxieneko soldata propioa ezartzeko eskumen osoa eskatzea, bizi-kostuari egokitua eta, betiere, Estatuko gutxienekoaren gainetik. Haren definizioa elkarrizketa sozialaren bidez bultzatzea, sindikatuen eta enpresa-erakundeen parte-hartzearekin.

02 Lan-harremanen esparru propioa eta euskal hitzarmen kolektiboen nagusitasuna babestea, legez aurreikusitako baldintzetan, langileentzako baldintza onuragarriagoak ezartzen dituztenean.

03 Negoziazio kolektiboa bultzatzea, produktibitate-hobekuntzak soldata hobeak, erosteko ahalmen handiagoa eta sortutako balioaren banaketa orekatua izan daitezen.

LAN-ESKUBIDEAK BETETZEA

04 Laneko abusuak hobeto hautematea eta zehatzea, eta Lan Ikuskaritza indartzea, laneko iruzurrari, kontratazio irregularrari, autonomo faltsuei, ezkutuko ekonomiari eta lan-araudia ez betetzeari aurre egiteko.

05 **Laneko arriskuen prebentzioa eta laneko osasun fisiko eta mentalaren babesa hobetzea**, osasun-zerbitzuen, mutuen eta Gizarte Segurantzaren arteko koordinazioa indartuz.

06 Ordainsarien gardentasunari buruzko Europako araudiaren aplikazioa ziurtatzea, emakumeen eta gizonen arteko soldata-desberdintasunak hautemateko eta zuzentzeko.

07 **Laneko jazarpenari, sexu-jazarpenari eta diskriminazio-jazarpenari aurre egiteko prebentzioa eta jarduna indartzea**, enpresetan protokolo eraginkorrak bermatuz.

PRESTAKUNTZA ETA PRAKTIKAK

08 Langileei etengabeko prestakuntzarako eta lanbide-prestakuntza eguneratzeko aukera ematea, aldaketa teknologiko eta produktiboetara egokitzeko.

09 Prestakuntza-praktiken arauketa sustatzea, ikasleen eskubideak bermatzeko eta hezkuntza-izaerari eusteko, Euskadiren gaitasunak eta Lanbide Heziketa Dualaren funtzionamendua errespetatuz.

LANGABEZIAREN AURREKO BABESA

10 **Langabezia-prestazioaren estaldura gehienez 36 hilabetera arte zabaltzea**, enplegagarritasuna hobetzeko prozesuekin lotuta eta lan-merkatura bueltatzeko zailtasun handienak dituzten pertsonen babesa indartuta.

PRODUKTIBITATEA, ABSENTISMOA, LEHIAKORTASUNA ETA LAN ONGIZATEA

11 Administrazio, sindikatu eta enpresa elkarteen parte-hartzearekin, lan produktibitatea, absentismoa, lehiakortasuna eta soldatak aztertzea, eta prebentzio eta kontrol-neurriak proposatzea, baita langileen ongizate fisiko eta mentala hobetuko duten ekintzak ere.

12 Itundutako soldata-hobekuntzek kontratatutako zerbitzu publikoak arriskuan jartzea saihestea: kasu estrategiko eta justifikatuetan, kontratuen prezioa eguneratzea ahalbidetzea, kostu horiek estaltzeko, eta enplegua nahiz zerbitzuaren jarraitutasuna bermatzea.

1.4 Aukerak zabalduko dituen hezkuntza

Aukera berdintasuna bermatuko duen hezkuntza defendatuko dugu, pertsonak egokitasunez prestatuko dituena beren talentua garatzeko aukera izan dezaten eta gizartean parte hartze aktiboa izan dezaten. Euskadik bere hezkuntza eredu propioa eraikitzeko aukera izan behar du.

PROPOSATZEN DITUGUNAK

HEZKUNTZA-EREDUA ETA GAITASUNAK

01 **Euskadiren hezkuntza-eskumenak babestea**, euskal erakundeei dagozkien erabaki-eremuetan Estatuaren interferentziak saihestuz.

02 Haurren eta nerabeen eskubideak eta aukera-berdintasuna bermatuko dituen hezkuntza inklusiboa, eleanitza eta kulturartekoa sustatzea.

03 **Hezkidetza eta hezkuntza afektibo-sexuala berdintasunean indartzea**, aniztasunarekiko errespetua sustatuz eta edozein diskriminazio- eta indarkeria-moduren prebentzioa bultzatuz.

BEKAK ETA AUKERA-BERDINTASUNA

04 **Beken Euskal Sistemaren araugintza-gaitasuna defendatzea**, Euskadiko errealitatera egokitutako ikasketei laguntzeko politika propioa mantentzeko.

LANBIDE HEZIKETA ETA UNIBERTSITATEA

05 **Lanbide Heziketa Duala indartzea**, prestakuntza-zentroen eta enpresen arteko lankidetza eta enplegu-aukerekiko lotura bultzatuz.

06 Unibertsitateen eta enpresen arteko lankidetza bultzatzea, prestakuntza, ikerketa eta enplegu kualifikatua sortzea sustatuz.

07 Euskadik bere unibertsitateen gobernantzari buruz erabakitzeko duen gaitasuna defendatzea eta Europako unibertsitate-proiektuetan parte har dezan bultzatzea.

1.5 Ahotsa eta erabakitzeko gaitasuna izango duen gazteria

Gazteek aukera guztiak izan beharko lituzkete beren bizitzan eragin zuzena duten erabakietan. Politika publikoetan beren proposamenek benetako ondorioak izatea nahi dugu.

PROPOSATZEN DITUGUNAK

ERABAKI PUBLIKOETAN PARTE HARTU AHAL IZATEA

01 Gazteek politika publikoen prestaketan, jarraipenean eta ebaluazioan parte hartzeko mekanismo eraginkorrak bultzatzea.

02 **Gazteen parte-hartzea indartzea bizitza publikoan eta demokratikoan**, erakundeek beren proposamenak entzun eta kontuan hartuko dituzten espazioak bermatuz.

GAZTEEN IKUSPEGIA LEGEETAN

03 **Estatuko legegintza-ekimenetan gazteen ikuspegia txertatzea**, bereziki etxebizitza, enplegu, hezkuntza, ikerketa eta gizarte-babesari dagokienez.

02

2. KONPROMEZUA

LAN EGITEN ETA AURRERA EGITEN DUEN EUSKADI

Industria, enpresak, energia, nekazaritza, itsasoa, azpiegiturak eta jasangarritasuna.

ATAL HONETAN

2.1 Industria sendoa eta erabaki-guneak Euskadin egon daitezela

2.2 Ekintzailetzan ari direnei, enplegua sortzen dutenei eta gure negozioak bizirik mantentzen dituztenei babesa ematea

2.3 Energia lehiakorra gure industriarentzat eta eskuragarria familientzat

2.4 Ingurumena babestuko duen trantsizio ekologikoa eta aukerak sortuko dituena

2.5 Etorkizuna gure herrientzat, nekazarientzat eta arrantzaleentzat

2.6 Azpiegiturak: epe-mugak, inbertsioak eta emaitzak.

2.7 Jarduera ekonomikoari mesede egingo dion fiskalitatea, inbertitzeko aukerak emango dituena

Euskadik aberastasuna eta kalitatezko enplegua sortzen jarraitzea nahi dugu. Horretarako beharko ditugu berton inbertitu, produzitu eta hazi ahal izango diren enpresak eta, horri lotuta, produktibitatearen arabera igoko diren soldatak jasoko dituzten langileak. **Ekonomia sendo bat poltsikoan nabaritu beharko litzateke:** nomina hobeak, energia eskuragarria eta etorkizuna duten negozioak.

Industria lehiakorra defendatuko dugu, sare elektriko nahikoekin eta inbertsioak atzera botako ez dituzten kostuekin. **Produkzio-sarea babestuko dugu: enpresa txiki eta ertainak, langile autonomoak eta kooperatibak**, eta laguntza emango diegu beren jarduerari eutsi ahal izan diezaioten, kontratu berriak eginez eta aldaketa teknologikoei ondo erantzunez.

Funtzionatuko duten azpiegiturak ere exijituko ditugu. **Trenbide-garraioan gertatzen den atzerapen bakoitzak, bete gabe uzten den inbertsio bakoitzak berdin kaltetzen baititu lanera doazen langileak** eta salgaiak garraiatu behar dituzten enpresak. Behar bezala amaitutako lanak nahi ditugu, epeak publiko egin daitezela eta zerbitzu fidagarriak berma daitezela.

Hori lortzeko, erabaki zehatzak behar ditugu: energia prezio lehiakorretan, gure industriaren beharrei erantzuteko gai diren sare elektrikoak, enpresa txiki eta ertainei eta autonomoei laguntzea, administrazio-oztopo gutxiago eta produktibitatea, soldata onak eta eskubideak uztartzen dituen lan-esparrua.

Etorkizun ona ere nahi dugu gure herrientzat eta kostaldeko komunitateentzat. Nekazaritzak, abeltzaintzak eta arrantzak elikagaiak ekoizten dituzte, enplegua sortzen dute eta gure lurraldea bizirik mantentzen dute. Errentagarritasuna defendatzea, belaunaldien arteko erreleboa erraztea eta Europako erabakietan parte hartzen dutela bermatzea, Euskadiren funtsezko zati bat defendatzea da.

Eta, gure herriak merezi dituen azpiegiturak behar ditugu. **Euskadik ezin du Estatuaren atzerapenen ondorioak ordaintzen jarraitu**. Euskal Y-a, trenbide-konexioak, portuak, aireportuak eta azpiegitura logistikoak beharrezko inbertsioak dira gure ekonomiarako eta milaka pertsonen mugikortasunerako. Hartutako KONPROMEZUak bete egin behar dira.

EAJ-PNVk jarraituko du kalitatezko enplegua sortu, berritu, esportatu eta sortuko duen Euskadi defendatzen. Europarekin konektatutako Euskadi, lehiatzeko prest dagoena eta behar dituen azpiegiturei eta baliabideei buruz erabakitzeko gai dena.

GURE KONPROMEZUAK

2.1 Industria sendoa eta erabaki-guneak Euskadin egon daitezela

Euskal industriak beharrezko ditu inbertsioak, energia lehiakorra eta bere erabaki propioak hartzeko ahalmena. Bere etorkizuna defendatuko dugu, bai eta sortzen duen enplegua ere.

PROPOSATZEN DITUGUNAK

INBERTSIOA ETA INDUSTRIA-ERROTZEA

01 **Euskal industria indartzea**, inbertsioa, berrikuntza eta modernizazio produktiboa erraztuz, gure errealitatea kontuan hartuko duen legeria industrialaren bidez.

02 Estatuak partaidetza edo finantzaketa publikoa duten euskal enpresekin hartu dituen KONPROMEZUak betetzen direla ziurtatzea, Euskadiko industria-jarduera, enplegua eta erabakiguneak berton geratzen direla defendatuz.

03 Krisi- edo eraldaketa-prozesuek kaltetutako eskualdeen etorkizun industriala babestea, hala nola Aiaraldearena, inbertsioen, berrikuntzaren, deskarbonizazioaren, lurzoru industrialaren eskuragarritasunaren eta inplikatutako eragileekiko elkarrizketaren bidez.

BERRIKUNTZA ETA MODERNIZAZIO TEKNOLOGIKOA

04 **Berrikuntza eta garapen teknologikoko Estatuko programak gure industriaren beharretara egokitzea**, euskal enpresei erraztasunak emanez digitalizaziorako, automatizaziorako, ikerketarako eta teknologia berrietarako finantzaketa izan dezaten.

05 Enpresa txiki eta ertainen modernizazio teknologikoa bultzatzea, soluzio digitalak, adimen artifiziala eta ekoizpen-prozesu eraginkorragoak eta iraunkorragoak txertatzen lagunduz.

KOOPERATIBAK ETA NAZIOARTEKOTZEA

06 **Euskal kooperatiben eredua babestea eta sustatzea**, Estatuko legeriak eredu horren berezitasunak onartzen dituela eta kalitatezko enplegua garatzen, errotzen eta laguntzen duela bermatuz.

07 **Euskal enpresei nazioartekotzeko ematen zaien laguntza areagotzea**, merkatu berrietara sartzea, esportazioak eta hornitzaileak dibertsifikatzea eta Europako industria-proiektuetan parte hartzea erraztuz.

2.2 Ekintzailetzan ari direnei, enplegua sortzen dutenei eta gure negozioak bizirik mantentzen dituztenei babesa ematea

Enpresa bat sortzea, mantentzea eta hazi araztea errazagoa izatea nahi dugu. Eta langile autonomoek behar bezalako gizarte babesa izan dezatela.

PROPOSATZEN DITUGUNAK

SORTZEN, HAZI ARAZTEN ETA FINANTZATZEN LAGUNTZEA

01 **Burokrazia murriztea eta** enpresak eta negozioak sortzea, handitzea eta kudeatzea **zailtzen duten administrazio-bikoiztasunak ezabatzea**.

02 **Enpresa txiki eta ertainei eta langile autonomoei finantzaketa lortzeko aukerak hobetzea**, Kreditu Ofizialeko Institutuaren ildoak eta inbertitzeko, instalazioak modernizatzeko eta jarduera zabaltzeko berme-tresna publikoak indartuz.

03 **Enpresa txiki eta ertainei hazteko orduan planteatzen zaizkien oztopo arautzaileak ezabatzea**, enpresa-lankidetza, proiektu partekatuak eta jarduera ekonomiko berrien sorrera bultzatuz.

LANGILE AUTONOMOAK BABESTEA

04 **Langile autonomoek** beren jarduera amaitzen dutenean **jaso behar duten babesa hobetzea**, eta, pixkanaka, langabezia-prestaziora hurbiltzen joan daitezela, baldintzak sinplifikatuz eta, beren borondatearen kontra lana utzi behar dutenean, prestazioak jasotzeko bideak erraztuz.

05 **Jarduera uzteagatiko prestazioaren eta enpresa-proiektu berri baten hasieraren arteko aldi baterako bateragarritasuna ahalbidetzea,** pertsona autonomoek berriz ekiteko aukera izan dezaten ahalbidetuz.

BELAUNALDI-ERRELEBOA ETA ENPRESA-JARRAITUTASUNA

06 **Enpresen eta negozio bideragarrien belaunaldi-erreleboa erraztea**, bereziki familiako negozioen kasuan jarraitutasunik ezaren ondoriozko itxierak saihestuz eta dauden enpleguak babestuz.

07 Plantillak kooperatiba edo lan-sozietateen bidez bideragarriak diren enpresez arduratu daitezen erraztea, horretarako langabezia-prestazioaren kapitalizazioa erabiliz.

2.3 Energia lehiakorra gure industriarentzat eta eskuragarria familientzat

Energia nahikoa, segurua eta prezio lehiakorrean ez badugu, ezin da industriaren etorkizunaz hitz egin. Euskadik beharrezko du energiari buruz hartuko diren erabakiek Euskadiko enpresen eta hiritargoaren benetako beharrei erantzutea.

PROPOSATZEN DITUGUNAK

SARE ELEKTRIKOAK ETA PLANGINTZA

01 Euskadiko sare elektrikoetako inbertsioak azkartzea, industria berrietarako, enpresa-zabalkuntzetarako, elektrifikaziorako eta bizitegi-eskarirako gaitasun nahikoa bermatuz.

02 **Estatuko energia-plangintza eta Energiaren eta Klimaren Plan Nazional Integratua berrikustea,** eta horietan txertatzea industria-beharrak, horniduraren segurtasuna eta lehiakortasun ekonomikoa.

03 **Jarraipen-mekanismoak, pizgarriak eta zigorrak ezartzea, planifikatutako sare elektrikoak gauzatzen direla bermatzeko**, onartutako inbertsioek justifikaziorik gabeko atzerapenak metatzea saihestuz.

04 **Sare elektrikoetarako sarbide- eta konexio-prozedurak arintzea**, industria-proiektu bideragarriei lehentasuna emanez eta eskura dagoen gaitasunarekin espekulatzea saihestuz.

05 Energia-biltegiratzea bultzatzea eta beharrezko gaitasun-mekanismoak aktibatzea, sistemaren egonkortasuna indartzeko eta hornidura elektrikoa bermatzeko.

KOSTUAK ETA INDUSTRIAREN LEHIAKORTASUNA

06 **Elektrizitatearen gaineko Zerga Berezia modu iraunkorrean %0,5era murriztea**, Europako araudiak baimendutako mugen barruan.

07 **Industriako CO_2-ari dagozkion zeharkako kostuak konpentsatzeko Europako araudiak baimendutako gehienekoa erabiltzea**, haren lehiakortasuna zaintzen lagunduz.

08 Eraginkortasun handiko industria-kogenerazioari laguntzeko araubide iragankorra ziurtatzea eta enkante berriak bultzatzea, instalazioen jarraitutasuna eta modernizazioa bultzatuz.

09 **Euskadin gas naturalaren hornidura- eta banaketa-azpiegiturak indartzea,** gaitasun operatiboa hobetzeko, horniduraren segurtasuna bermatzeko eta euskal industriaren energia-beharrei erantzuteko beharrezkoak diren inbertsioak erraztuz.

10 Biometanoa, hidrogeno berriztagarria eta emisio txikiko beste erregai batzuk garatzen laguntzea, bereziki prozesu industrialetarako eta elektrifikatzen zailak diren garraioetarako, fiskalitate pizgarria barne.

KONTSUMITZAILEAK ETA ERREGULAZIOA

11 **Kalteberatasun-egoeran dauden energia-kontsumitzaileei ematen zaien babesari eustea**, bonu sozial elektriko eta termikoak barne, eta gas naturalaren azken baliabideko tarifari eustea.

12 **Energiaren Batzorde Nazionala erregulatzaile independente gisa berrezartzea**, merkatuaren ikuskapena eta kontsumitzaileen babesa indartuz.

2.4 Ingurumena babestuko duen trantsizio ekologikoa eta aukerak sortuko dituena

Euskadi industrial eta iraunkorra nahi dugu. Trantsizio ekologikoak berarekin ekarri behar du isurketak murriztea, gure baliabideak babestea eta aukera ekonomiko berriak erraztea, jarduera produktiboa arriskutan jarri gabe.

PROPOSATZEN DITUGUNAK

ERAIKINAK, AUTOKONTSUMOA ETA MUGIKORTASUNA

01 Eraikinen birgaitze energetikoa bultzatzea, Eraikuntzaren Kode Teknikoa eguneratuz eta Eraikinak Berritzeko Plan Nazionala garatuz.

02 **Autokontsumo partekatua ahalbidetzea eta energia-komunitateak sortzeko erraztasunak** ematea, izapidetze-epeak murriztuz eta kontsumotik hurbil dagoen sorkuntza berriztagarria bultzatuz.

03 **Garraioak eta klimatizazioa elektrifikatzen laguntzea**, euskal erakundeen eskumenekin bateragarriak diren laguntza eta pizgarri fiskalen programen bidez.

EKONOMIA ZIRKULARRA ETA LURZORUAK BERRESKURATZEA

04 Ekonomia zirkularra eta materialen berrerabilera bultzatzea, konponketa, birziklapena, hondakinen balorizazioa eta horiek industria-prozesu berrietan aprobetxatzea lagunduz.

05 Degradatutako industria-lurzoruak berreskuratzen laguntzea, jarduera ekonomiko eta sozial berrietarako berrerabiltzea erraztuz.

KLIMA-ALDAKETARA EGOKITZEA ETA BIODIBERTSITATEA ZAINTZEA

06 Klima-aldaketara egokitzeko estrategia bat bultzatzea, finantzaketa nahikoarekin, uholdeak, denboraleak, suteak eta muturreko fenomeno meteorologikoak prebenitzeari lehentasuna emanez.

07 **Ibaien, basoen, hezeguneen, naturguneen eta itsas ekosistemen babesa bermatzea eta lehengoratze-prozesuak indartzea**, biodibertsitatearen kontserbazioa hobetuz.

ITSASERTZA ETA URA BABESTEA

08 Kostaldeei buruzko Legearen erreforma integrala bultzatzea, segurtasun juridikoa emateko, itsasertza klima-aldaketara egokitzeko eta Euskadiren eskumenak errespetatzeko.

09 Euskadik kostaldea babesteko interes orokorreko inbertsioak programatu eta egikaritu ditzan sustatzea, dagozkion baliabide ekonomikoekin.

10 Euskal kostaldea egokitzeko eta babesteko plan bat bultzatzea, higaduraren, denboraleen, uholdeen eta itsas mailaren igoeraren aurrean.

11 **Ur-hornidura, saneamendu eta arazketako inbertsioak areagotzea**, sareen eraginkortasuna, presen segurtasuna eta kutsaduraren prebentzioa hobetuz.

2.5 Etorkizuna gure herrientzat, nekazarientzat eta arrantzaleentzat

Nekazari, abeltzain eta arrantzalerik gabe ez dago etorkizunik, ez gure herrientzat ez eta gure kostako komunitateentzat ere. Lehen sektore errentagarria defendatzen dugu, belaunaldien arteko erreleboarekin eta besteekin lehiatzeko gaitasunarekin.

PROPOSATZEN DITUGUNAK

NEKAZARITZA, ABELTZAINTZA ETA ELIKADURA-KATEA

01 2028-2034 epealdirako Nekazaritza-Politika Bateratua ziurtatzea, Euskadirentzat Plan Estrategiko propioa aitortuko duena, euskal erakundeek kudeatu, programatu eta

kontrolatzeko ahalmena izango duena eta finantzaketa nahikoa eta bereizia izango duena.

02 Merkataritza-jarduera desleialen aurrean babesa indartzea, ekoizleen eta kooperatiben negoziazio-gaitasuna hobetzea eta produkzio-kostuak kontuan hartuko dituen ordainsaria bermatzea.

03 **Nekazaritzan eta abeltzaintzan belaunaldien arteko erreleboa erraztea**, sektorean sartzen diren gazteentzako kotizazio murriztuen, ustiategiak eskualdatzeko neurrien eta lurra eskuratzeko laguntzen bidez.

04 Inportatutako produktuetarako merkataritza-baldintza baliokideak sustatzea, sektore sentikorrenen kontrolak, trazabilitatea eta babes-mekanismoak indartuz.

05 Animalien osasunerako, nekazaritzako aseguruetarako eta larrialdi-egoeretarako finantzazioa ziurtatzea, kostuak euskal erakundeei eta ustiategiei soilik ez egozteko.

06 Arabako Errioxaren etorkizuna babestea, errentagarritasun- eta merkaturatze-neurriak bultzatuz eta ardoen etiketetan eta identifikazioan jatorriaren bereizketa indartuz.

BASOEN KUDEAKETA

07 **Basogintza-sektorea eta zuraren industria modernizatzen laguntzea**, kudeaketa iraunkorra, berrikuntza eta tokiko baliabideen aprobetxamendua bultzatuz.

ARRANTZA-POLITIKA ETA KUOTAK

08 Euskal ontzidiaren bideragarritasuna bermatuko duen Arrantza Politika Erkidearen berrikuspena bultzatzea, Europako finantzaketa nahikoa eta espezifikoarekin, araudi-egonkortasunarekin eta irizpide zientifiko eta sozioekonomikoetan oinarritutako erabakiekin eta arrantza-sektorearen parte-hartzearekin.

09 2022/1614 (EB) Erregelamenduak eragiten dien ipar-ekialdeko Atlantikoko 87 eremuetan hondoko arrantzarako Europak egiten dituen murrizketak berrikustea, ebaluazio zientifiko eguneratuak eta arrantzaleen ezagutza txertatuz.

10 Arrantza-kuoten bidezko banaketa eta kudeaketaren malgutasun handiagoa lortzeko lan egitea, harrapaketa historikoei eta arrantza-modalitateen beharrei erreparatuta.

ONTZIDIA, ENPLEGUA ETA GIZARTE-BABESA

11 **Euskal arrantza-ontzidiaren berrikuntza erraztea**, eskura dagoen arrantza-ahalmena erabiliz (GT eta kW) eta ontzien segurtasuna, lan-baldintzak, energia-eraginkortasuna eta bizigarritasuna hobetuz.

12 **Itsasoko langileen gizarte-babesa hobetzea**, arrantzako eta merkaturatzeko autonomoentzat erretiro-koefiziente murriztaileak aitortzea barne, eta sektoreko emakumeentzako neurri espezifikoak inplementatzea.

13 **Laguntzak ezartzea energia-kostuak, debekualdiak eta arrantza-geldialdiak ohiz kanpo handitzen direnerako**, eta eragindako kolektiboetara iristen direla bermatzea.

14 **Legez kanpoko arrantzari eta lehia desleialari aurre egitea**, inportazioei ingurumen-, lan- eta osasun-berme baliokideak eskatuz, eta Elikadura Katearen Legea indartzea, ekoizpen-kostuak estaliko dituzten prezioak bermatzeko.

15 **Belaunaldien arteko erreleboa eta itsasoaren eta arrantzaren arteko prestakuntza bultzatzea,** gazteei arrantza-jarduerarako sarbidea eta sektoreko enpresen jarraipena erraztuz.

2.6 Azpiegiturak: epe-mugak, inbertsioak eta emaitzak.

Euskadiko azpiegiturek ezin dute jarraitu legegintzaldiz legegintzaldi behin eta berriz atzeratzen diren erabakiak betetzeko zain. Atzerapen bakoitzak bere ondorioak ditu: behar den zerbitzua ematen ez duten trenak, guztiz baldintzatuta dauden proiektu industrialak, errepidetik garraiatu behar diren salgaiak eta etengabe galtzen diren aukera ekonomikoak.

EAJ-PNVk Estatuari exijituko dio Euskadirekin hitzeman dituen KONPROMEZUak bete ditzala. Hitzemandako inbertsioak eginda nahi ditugu, epeak publiko egin ditzatela eta erantzukizunak argi eta garbi egon daitezela. Eta defendatu egingo dugu euskal erakundeen esku egon dadila gure hiritargoari zerbitzua ematen dioten azpiegiturak kudeatzeko ahalmena.

02

PROPOSATZEN DITUGUNAK

BIDAIARIENTZAKO TRENBIDE-GARRAIOA ETA LURRALDEEN ARTEKO LOTURAK

01 Euskal Y-a beste atzerapenik gabe amaitzea, egikaritze-egutegi egiaztagarriarekin, Bilboko eta Gasteizko lurpeko sarbideei buruzko akordioak errespetatuz eta Iruñearekiko lotura bermatuz.

02 **Oso-osorik Euskaditik igarotzen diren aldiriko tren-azpiegituren transferentzia burutzea**, horien kudeaketa, mantentzea, irisgarritasuna eta euskal garraio-sistemarekiko koordinazioa hobetzeko.

03 Garraio Ministerioari KONPROMEZUak bete ditzala eskatzea, trenbide-pasaguneak kentzeko, batez ere Enkarterrin eta Zallan, eta horiek gauzatzeko epe lotesleak ezartzea.

04 Martuteneko geralekuaren eta aurreikusitako bide berriaren lekualdaketa sustatzea, Donostiako jarduketa horien atzerapenei amaiera emanez.

05 Loiolako Erriberako aldageltokia eraikitzeko akordioa betetzen dela ziurtatzea, Estatuaren, Eusko Jaurlaritzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren lankidetzaren bidez.

06 Irun Bidea 2030 proiektua bultzatzea, trenbidearen eta hiriaren eraldaketa integratuz eta beharrezko trenbide-espazioen liberazioa erraztuz.

07 Trenbide-garraioaren irisgarritasun unibertsala ziurtatzea, geltokietan oztopoak kenduz eta gurpildun materiala mugikortasun urriko pertsonentzat egokituz.

SALGAIAK ETA TRENBIDE-LOGISTIKA

08 Atlantikoko trenbide-korridorean konprometitutako inbertsioen gauzatzea sustatzea, Euskadi iberiar penintsularen eta Europaren arteko trenbide-lotura estrategiko gisa sendotuz.

09 Bilboko hegoaldeko trenbide-saihesbidea lehentasunez egingo dela ziurtatzea, hiri-inguruneetako salgaien trafikoa murrizteko, Bilboko Portuarekiko lotura hobetzeko eta bidaiari-zerbitzuetarako edukiera askatzeko.

10 Jundizko Plataforma Multimodala bultzatzea, haren logistika- eta trenbide-ahalmena indartuz, Atlantikoko trenbide-korridorearen parte den azpiegitura gisa.

11 **Bilboko eta Pasaiako portuen eta Lezo-Gaintxurizketako nodo logistikoaren trenbide-loturak garatzea**, Europako sarearekiko elkarreragingarritasunean aurrera eginez.

AIREPORTUAK

12 Inbertsio eta garapen-gaitasun gehiago sustatzea Forondako aireporturako, logistika-, industria- eta bidaiari-jarduera indartuz, proba-ingurunea eta nazioarteko konektibitatea eraginkortasunez abiaraziz.

13 **Euskal aireportu-eredu koordinatu bat sustatzea**, Euskadiri erabakitzeko ahalmen handiagoa emango diona Bilbo, Donostia eta Gasteizko plangintzari, inbertsioei eta konektibitateari buruz, eta inguruko aireportuekin elkarlanean arituz.

PORTUEN KUDEAKETA ETA LEHENGORATZE-LANAK

14 Bilboko eta Pasaiako portuak kudeatzeko autonomia handiagoa bermatzea, eta Euskaditik kudeaketa integrala lortzea. Pasaiaren kasuan, interes orokorreko portu gisa desklasifikatzea sustatuko dugu, transferentzia ahalbidetzeko.

15 Pasaiako badia berroneratzea bultzatzea eta laguntzea, erakunde eskudunen arteko akordioen eta hiri, portu- eta ingurumen-beharrak integratuko dituen plangintzaren bidez.

MUGIKORTASUN ELEKTRIKOA ETA ERREPIDEKO GARRAIOA

16 **Ibilgailu elektrifikatuak erosteko laguntza egonkorrak mantentzea**, erosteko unean zuzenean aplikatzea erraztuz eta euskal erakundeen kudeaketa-eskumenak errespetatuz.

17 Garraio astun eta profesionaleko flotak berritzen laguntzea, kamioientzako, autobusentzako eta emisio gutxiagoko ibilgailuentzako urte anitzeko laguntzen bidez.

18 **Ibilgailu elektrikoak kargatzeko guneen hedapena bizkortzea**, batez ere korridore estrategikoetan, industrialdeetan eta garraio astuneko bideetan.

19 **15/2009 Legea aldatzea, errepideko bidesarien kostuak garraioaren bezeroei jasanarazi ahal izango zaizkiela bermatzeko**, eta garraio-enpresei soilik ez eragitea.

Euskadik azpiegiturak amaituta behar ditu, mantentze lan egokiarekin eta ondo kudeatuta. Ez dugu onartuko Estatuak hartu dituen KONPROMEZUak datarik gabeko iragarpen bihurtzea. KONPROMEZUak bete daitezela exijituko dugu, inbertsioak eta egutegiak zehatz-mehatz jasota.

2.7 Jarduera ekonomikoari mesede egingo dion fiskalitatea, inbertitzeko aukerak emango dituena

Erakundeek beren baliabide propioak erabili ahal izatea nahi dugu, euskal hiritargoaren beharrei erantzun egokiak emateko. Fiskalitateari dagokionez, erosteko ahalmena babestu eta jarduera ekonomikoa ahalbidetuko duen zerga-sistema babestuko dugu.

PROPOSATZEN DITUGUNAK

ONDASUN ETA ZERBITZUEN FISKALITATEA

01 Oinarrizko ondasun eta zerbitzuen BEZaren erreforma integrala bultzatzea, oinarrizko elikagai jakin batzuei (arraina, haragia, besteak beste) eta elikadura-produktu espezifikoei (zeliakoak, beste kolektibo batzuen artean) zero tasak edo tasa supermurriztuak aplikatzea eta funtsezko horniduren (elektrizitatea, gasa, erregaiak...) eta garraio publikoaren zergak berrikustea, Europako esparruaren barruan.

02 **BEZ kulturala berrikustea, artisten eta galerien lana errazteko,** Europako araudiaren aukerak aprobetxatuz.

INBERTSIO PUBLIKOA ETA FINANTZA ETA FISKALITATE-AUTONOMIA

03 Euskal administrazioei inbertsio-tarte handiagoa ematea, aurrekontu-egonkortasunari buruzko araudia berrikusiz, Europako zerga-esparru berrira egokituz eta administrazioentzako gastu-arau malguagoak ahalbidetuz.

04 **Udalek, foru-aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak beren superabitak lehentasunezko inbertsioetarako erabil ditzaten erraztea**, baliabide erabilgarriak murrizketa orokorren ondorioz blokeatuta egon ez daitezen.

05 Ziurtatzea zerga- eta aurrekontu-erreformek errespetatu egingo dituztela Ekonomia Ituna eta euskal erakundeen finantza-autonomia, bai eta Estatuarekin koordinatzeko eta harremanetan jartzeko berezko mekanismoak ere.

